Ordu bat	La primera hora de estacionamiento	0,90	0,90
Ordu eta erdi	Por hora y media de estacionamiento	1,35	1,35
Bi ordu	Por dos horas de estacionamiento	1,90	1,95
Hiru ordu	Por tres horas de estacionamiento	4,40	4,45
Lau ordu	Por cuatro horas de estacionamiento	7,65	7,80
Salaketa balio gabetzea	Anulación de denuncia	11,05	11,25
ALDE BERDEA	SECTOR VERDE		
Goiza	Mañana	1,90	1,95
Arratsaldea	Tarde	1,90	1,95
Egun osoa	Día completo	3,90	4,00
Salaketa balio gabetzea	Anulación de denuncia	11,05	11,25
BERTAKOENTZAKO APARKALEKUA	APARCAMIENTO PARA RESIDENTES		
Bertakoen txartela, €/ urte	Tarjeta residentes, €/ año	40,05	40,75
PARKIMETROAK	PARQUIMETROS		
Banakako parkimetroa, alokairuan	Parquímetro individual, en cesión de uso	198,75	202,15
Karga-txartela	Tarjeta de carga	11,05	11,25
Txartelaren karga	Carga de la tarjeta	30,10	30,60
Autokarabantzen gunean aparkatzea eguneko	Estacionar en área de autocaravanas por día	1,00	1,00

2.2.12. Herri baratza

IUARRAMENDIKO BARATZEN ERABILPENA	USO DE HUERTOS MUNICIPALES DE IUARRAMENDI	2017	2018
1.- Elbarriak	1.- Personas con minusvalía	60,10	61,10
2.- Langabetuak	2.- Personas desempleadas	60,10	61,10
3.- Beste erabiltzaileak	3.- Personas usuarias en general	120,20	122,25
4.- Elkarteak	4.- Asociaciones	180,30	183,35

10. Ordenantza honen aldaketa 2018rako: prezio publikoena.

10. Modificación para el año 2018 de la ordenanza reguladora de los precios

públicos.

Jarraian, Ogasun batzordeak 2017ko urriaren 25eko diktamenaren arabera, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- Ogasun batzordeak aurkezturiko diktamena, 2018rako prezio publikoaren gaineko zergaren ordenantzaren aldaketari dagokiona, behin-behingo bere egitea.

Bigarren.- Hartutako akordioa eta bideratutako espedienteak jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epeaz, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Foralak agindu bezala: Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historiko boletinean eta egunkaririk zabalduenetako batean iragarkia argitaratuz.

Hirugarren.- Aipatutako erabakia behin betikoa jotzea beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendaurreko erakustaldi hori inolako erreklamaziorik jaso gabe agortu bada.

Hala ere, erabaki diren akordio bat edo batzuk erreklamazio xede bihurtzen badira, Udalbatzak horiei buruzko erabakiak hartzea joko du, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko ebazpenak emanez edo aipatu aldaketen behin-betikoko testua onetsiz.

Alabaina, ez da erabaki berririk hartu behar izango jendaurreko erakustaldiaren barru erreklamazio xede izan ez den edo ez diren akordioei buruz, akordio horiek behin-betikoko onartutakotzat joko baitira.

Aipatutako diktamena

2018 urterako Tolosako udaleko zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzan ondorengo aldaketak aztertu dira:

3.1.2. Udal garraio zerbitzua

Prezio publikoa izatez uzten du, beraz, kentzea proposatzen da:

3.1.2. Servicio de transporte municipal

Deja de ser un precio público, por lo que se propone quitarlo.

3.1.3. Txuleta festaren otordua

Tolosako udalak antolatzen duen Txuleta Festan otordueterako txartelak saltzen

3.1.3. Comida y cena fiesta de la chuleta

En Txuleta Festa organizado por el Ayuntamiento de Tolosa, se venden tickets para las comidas y cenas. Los

dira. Txartel horien prezioak prezio publikoak dira, beraz, hemen onartzea proposatzen da.

precios de esos tickets son precios públicos, por lo que se propone aprobarlo aquí.

		2018
Otorduetako txartela	Ticket para comida/cena	45 euro (BEZa barne)

3.1.Zinea

% 1,7 eko igoera orokorra aplikatzea proposatzen da eranskin honetako tarifei.

3.1.2. Cine

Se propone aplicar a las tarifas el aumento general del 1,7%.

11. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.

11.Aprobación de las facturas del ejercicio cerrado.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, berea egin du Ogasun Batzordeak 2017ko urriaren 25ean jaulkitako diktamena:

“Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten den faktura hau 2017ko ekitaldian jaso da, baina 2016ko ekitaldiko faktura data du.

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2017-09-19	2016-12-07	0800.220.00.332.1 0	ZINET MEDIA GROUP	SN/2016/00002623 5	Aramburu helduen liburuegirako "Muy Interesante" aldizkariaren 2016ko harpidetza	29,40 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2016ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2017ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.”

12. Dekretu hauen berri ematea: 1877/2017 (2017/11 transferentzia kreditua), 1881/2017 (2017/12 kreditu gaikuntza) eta 1883/2017 (2017/13 kreditu gehigarria).

12. Dar cuenta de los decretos 1877/2017 (transferencia de crédito 2017/11), 1881/2017 (habilitación de crédito 2017/12) y 1883/2017 (crédito adicional 2017/13).

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendi, Ogasun batzordeburua: Gai hau ez dago bozkatu beharrik baizik eta egin diren hiru kredituen aldaketen hauen berri plenoari jakinarazten zaio. 11.a transferentzia kreditua da eta azpiegituren mantenimendutik 4.000 € ingurumen jardueri aurre egiteko, lurramendiko baratzaren txabola teilatua konpontzeko. 12. a gehikuntza modalitatekoa da eta aurreikusitakoaz aparte jaso ditugu 17.734,00 €; Eusko Jaurlaritzatik jaso ditugu 4.434,00 € Gizarte Zerbitzuetara pasako direnak, eta Gipuzkoa Foru Aldunditik 13.300,00 € Berdintasun sailera pasako direnak martxan dauden bi proiektu jorrazteko. 13. kreditu aldaketa gehigarria da eta 34.262,00 € finantzatuko direnak gerakinetatik, alkateak duen eskumena erabiliz. Kasu honetan diru banaketa honela egingo da: 5.000,00€ erabiliko dira Oriaburu etxean Co-working-ean komunikazioarako; Santa Maria elizako bisita gidatuetarako erabili diren 1.845,00€ eta azoketan jardueri berriei aurre egiteko 3.912,00 € eta hemen barne jarduera berri bezala daude Sagardo Fest, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroak "Azoka eta egungo gizarte urbanoaren beharrak" e. a.. Jaietan 17.960.00€ pabiloi baten alokairurako. Hauek dira 11, 12 eta 13. kreditu aldaketak.

Kontuhartzaileak, 2017ko aurrekontuari dagozkion 11., 12. eta 13. kreditu aldaketarako espedienteen kontu eman du.

Hamaikagarren espedientea kreditu transferentzia modalitatean egin da, eta kreditua transferitzen eta jasotzen duten partidak hauek dira:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0700.210.01.153.20 2017	AZPIEGITUREN MANTENIMENDUA. BIDE PUBLIKOA	200.000,00	4.000,00	196.000,00
	GUZTIRA	200.000,00	4.000,00	196.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

OHIZKO OSOKO BILKURA
2017.10.31

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1100.226.08.172.00 2017	INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA	50.700,00	4.000,00	54.700,00
GUZTIRA		50.700,00	4.000,00	54.700,00

Hamabigarren espedientea kreditu gaitzeta modalitatean egin da, eta guztira 17.734 eurokoa izan da.

2017ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 1400.226.06.231.60 2017	JARD.SOZIO-KULTURAK.BERDINTASUNA	13.300,00
1 0500.480.01.231.40 2017	FAMILIEI.GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK	4.434,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		17.734,00

2017ko aurrekontuko kreditu gaitzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 410.01 2017	EUSKO JAURLARITZAREN TRANSFEREN.ARRUNTAK	4.434,00
a	2 420.99 2017	DIPUTAZIOAREN BESTE TRASNFEREN.ARRUNTAK	13.300,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			17.734,00

OHIZKO OSOKO BILKURA
2017.10.31

Hamahirugarren espedientea kreditu gehigarrien modalitatekoa izan da, eta kredituen gehikuntza, guztira, 34.262 eurokoa da. Kreditu aldaketa honekin ez da gainditzen Alkateak duen eskumena 2017an kreditu gehigarriak onartzeko.

Partiden aldaketen xehetasuna hau da:

Gastuen partida	1. Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.200.01.342.30 2017	LURREN ERRENDAMENDUAK. BERAZUBIKO ESTADIO	1.400,00	2.700,00	4.100,00
1 1100.226.03.430.20 2017	KOMUNIKAZIOA. ORIABURU	0,00	5.000,00	5.000,00
1 1100.226.06.431.10 2017	JARD.SOZIO KULTURALAK. FERIA ETA AZOKAK	92.600,00	3.912,00	96.512,00
1 1100.226.99.432.00 2017	HAINBAT GASTU. TURISMOA	13.000,00	1.845,00	14.845,00
1 0700.625.99.153.40 2017	EKIPAMENDUA. ZERBITZU OROKORRETAKO LANTALDEA	53.100,00	2.245,00	55.345,00
1 0400.624.01.130.00 2017	UDALTZAINGOAREN IBILGAILUAK	25.000,00	600,00	25.600,00
1 0800.201.01.338.00 2017	ERAIKINEN ALOKAIURUAK. JAIK	29.040,00	17.960,00	47.000,00
GUZTIRA		214.140,00	34.262,00	248.402,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2017	ALTXORTEKIKO GERAKINA	34.262,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			34.262,00

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

13. 2017/14 kreditu gehigarriaren hasierako onarpena. Egonkortasunaren txostenaren jakinarazpena.

13. Aprobación inicial del crédito adicional 2017/14. Comunicación al Pleno del informe sobre estabilidad presupuestaria

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko urriaren 25ean jaulkitako diktamena, akordio bihurtuz:

“2017/14 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien bidez. Hasierako onarpena.

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 14/2017 espedientea aztertu da.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, batzorde honek diktaminatu du aipatutako espedientea ontzat ematea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 500.000 eurokoak, behin betiko onar ditzala”

14. Onartzea 2017ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena.

14.Aprobación de la propuesta de modificación del anexo de subvenciones del 2017.

1) Tolosako Udalak, 2017ko aurrekontuetan, Euskara Zerbitzuaren diru laguntzen partidan, “erabilera lan munduan” atalean, kopuru bat aurreikusi zuen, besteak beste, Tolosa & Co elkartearekin lankidetzako hitzarmen bat egiteko asmoarekin, beti ere euskara normalizatzeke ekintza proiekturen bat bideratzeko bere bazkideen artean.

Orain, Tolosa&Co elkarteak asmoa azaldu du euskara erabiltzeko plan bat egiteko eta zabaltzeko bere kideen artean.

Hortaz, Euskara Zerbitzuaren 2017ko udal aurrekontuko diru laguntzen 0900.481.01.335.10 partidako “Erabilera lan munduan” ataletik 7.300 euro ateratzea diktaminatu da eta nominatibo bezala izendatzea Tolosa &Co elkartearentzat, euskararen erabilera plangintza aurrera eraman dezan.

2) Euskal Fondoak erakundeak “ur edangarriraen sistema zabaltzea. La Cañada eta San Luis Tonitzul. I.fasea.Raxruha, Alta Verapaz, Guatemala” proiektua aurrera eraman behar du.

2017ko ekainaren 9ko Gizarte Politikako Batzorde Informatiboak 2017an Tolosako udalak proiektu hori kofinantzatuko zuela irizpidetu zuen. Horretarako, 7.055 €ko diru- ekarpena egin behar zaio.

Hori dela eta, Euskal Fonda erakundeari bere ekimenak burutzeko 0500.491.01.231.00 partidako "Nazioarteko dirulaguntzak" ataletik 7.055 euro ateratzea diktaminatu da eta nominatibo bezala izendatzea Euskal Fonda erakundearentzat.

Beraz, honela geratuko ziren:

Partida	Onuraduna	Helburua	Hasierako Aurrekontua	Tipoa
0900.48	FINPSESAK	Erabilpen erudikar	7.000,00	konkurrantzia
0900.48	FINPSESAK	Erabilpen erudikar	7.300,00	nominativa

Partida	Onuraduna	Helburua	Hasierako Aurrekontua	Tipoa
0500.491.01.231.00	ELKARTEAK	Nazioarteko dirulaguntzak	52.016,41	concurrència competitiva
0500.491.01.231.00	EUSKAL FONDOA	Ur edangarriaren proiektua.Guatemala	7.055,00	nominativa

15. Kontu ematea 2017ko aurrekontuaren exekuzioari buruz (urtarriletik irailera).

15. Dar cuenta de la ejecución de los presupuestos del 2017 (de enero a septiembre).

21/2003 Foru Arauaren 64. artikulua ezarritakoari jarraituz, Kontuhartzaileak 2017ko aurrekontuaren lehen hiru hiruhilabetekoaren (urtarriletik irailera, biak barne) exekuzioari buruzko ondorengo dokumentuak aurkeztu ditu:

- Sarrerak, kapituluka eta partidaka
- Gastuak kapituluka, kontzeptuka eta organuka

Dokumentuak aktari atxikituta gelditzen dira (1.eranskina).

Lehen sei hilabeteko informazioa aurkezteko erabili ziren egitura berdineko dokumentuak erabili dira, Udaltzat bestea informaziorik eskatzen ez duen bitartean.

Udal batzarreko kideak jakinaren gainean geratu dira.

16. Tolosako EHBildu alderdiak aurkeztutako mozioa, "Kalitatezko autobus zerbitzu baten alde, murrizketarik ez" lelopean.

16. Moción presentada por la coalición EHBildu de Tolosa: "Kalitatezko autobus zerbitzu baten alde, murrizketarik ez"

Lehenik eta behin Idazkariak EHBildu alderdiak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Honela dio:

KALITATEZKO AUTOBUS ZERBITZU BATEN ALDE, MURRIZKETARIK EZ

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017ko irailaren 7an, bidaiarien garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoa (Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak izenekoa-) argitaratu zuen. Argitaratutakoaren arabera, onartutako aurreproiektua jendaurrean erakutsi zen hilabeteko epean. Epe horretan, edozein pertsona edo entitatek egoki irizten dituen alegazioak egitea zuen aurreproiektuari.

2017ko urriaren 6an Foru Aginduaren bidez, ebatzi zuen luzatzea 2017ko urriaren 23ra arte alegazioak eta oharra aurkezteko epea. Agerikoa da zerbitzu honen esleipena ez dela egin kontuan edukita herritarrei zor diogun errespetua, eta ez dela konpontzen zuzenketa batzuekin. Berrito atera behar dela, alde aurretik kontuan edukita eragile guztiak, hau da, udalerrriak, sindikatuak eta erabiltzaileak.

Esan, martxan dagoen zerbitzuaren esleipenaren antolaketa burutu zenean parte hartze prozesu sakon bat sustatu zela GFaren aldetik. Horrela, herriz herri erabiltzaile eta udaletxeetako iritzi eta beharrak jasoak izan ziren bai ordutegi zein ibilbidearen egokitzapenak kontutan hartzeko helburuz.

Autobus zerbitzu honek 40.000 tik gora tolosarri eman dio zerbitzu 2016. Urtean eta urte urte erabiltzaile kopurua igotzen doa %2 batean hain zuzen. Hori dela eta ulergaitza egiten da zerbitzuen murrizketa hau egin nahi izatea.

Tolosaren kasuan, murrizketa hauek oso esanguratsuak dira, Donostiara doazen zuzeneko zerbitzuen maiztasuna 30 minututik 60 minutura pasatzen baitira eta egunean zehar 33 izatetik 18 izatera pasatzen dira. Hori gutxi ez eta lehen ordutan unibertsitatera doazen 8 zerbitzuetatik 4 desagertzen dira, gazteak unibertsitatera joateko aukerak murrizten.

Esan gabe doa, aurreikusten diren zerbitzu murrizketak ez direla onargarriak, ikuspuntu ekonomizista batetik ezarrita daudelako. Eta ez duela kontuan edukitzen herritarren beharrak mugikortasun jasangarriaren ikuspuntutik.

Mozioa

- *Tolosako udalbatzak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari bertan behera utzi dezala Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiako loturak izeneko zerbitzuaren esleipena.*
- *Tolosako udalbatzak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari ireki dezala prozesu bat sindikatuekin, erabiltzaileekin eta inplikaturako udalerriekin zerbitzua berrito esleitzeko aldera.*

Jarraian, EAJ-PNV alderdiak aurkeztutako mozioa irakurri da. Honela dio:

“KALITATEZKO AUTOBUS ZERBITZU BATEN ALDE, MURRIKETARIK EZ

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2017ko irailaren 7an, bidaiaren garraio erregular

iraunkorreko zerbitzu publikoa (Tolosa N-1 eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak izenekoa) argitaratu zuen. Argitaratukoaren arabera, onartutako aurreproiektua jendaurrean erakutsi zen hilabeteko epean. Epe horretan, edozein pertsona edo entitatek egoki irizten dituen alegazioak egitea zuen aurreproiektuari.

2017ko urriaren 6an Foru Aginduaren bidez, ebatzi zen luzatzea 2017ko urriaren 23ra arte alegazioak eta oharrak aurkezteko epea.

Autobus zerbitzu honek 40.000tik gora tolosarri eman dio zerbitzu 2016.urtean eta urtez urte erabiltzaile kopurua igotzen doa %2a, hain zuzen.

Tolosaren kasuan, murrizketa hauek oso esanguratsuak dira, Donostiara doazen herrien arteko autobus zeritzuen maiztasuna 30 minututik 60minutura pasatzen baitira eta egunean zehar 33 izatetik 18 izatera pasatzen dira. Hori gutxi ez eta lehen orduan unibertsitatara doazen 8 zerbitzuetatik 4 desagertzen dira.

Horiek horrela, ondorengo mozioa proposatzen dugu onartzeko:

- 1. Tolosako Udaleko Osoko bilkurak Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari eskatzen dio Tolosaren konektagarritasuna bermatzeko Donostiarekin eta Buruntzaldea osoarekin hiriarteko Autobus-zerbitzuaren bitartez, arreta berezia eskainita puntako lanorduei eta eskola-orduei, eta zerbitzuak udalerriko eta Buruntzaldea osoko biztanleen benetako mugikortasunera egokituta.*
- 2. Aurreproiektu honek eragin negatiboa sortarazten duela tolosarrengan eta eskualdeko herritarrengan. Gainera, alde zaureratik, ez zaie honen beri eman eragindako udalerriei.*
- 3. Garraio publikoaren azterketa sakona egin artean mantendun ditzala orain arteko zerbitzuak.*
- 4. Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio alegazio epean egindako ekarpenak kontuak hartzeko Tolosaldean Lurraldebusen zerbitzu hobetzen jarraitzeko baliagarriak izan daitezke eta."*

*Mozioa bozketara jarri da eta, EAJ-PNV(9) eta PSE-EE(1) alderdiko botoekin eta EHBildu (7) alderdiko aurkako botoekin, Udalbatzak, gehiengoz, **mozioa onartu egin du.***

Partehartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): "Guk aurkeztu genuen mozioaren kontra EAJk beste mozio bat aurkeztu du, ulertu dut EAJk eta PSOE alderdiak adostutako testua dela. Guk argi eta garbi adieraziko dugu hemen, mahai gainean, eta, gaur, mozio honetan agertzen direnak murrizketak dira. Murrizketak agertzen diren heinean EHBilduren ustez onartezinak dira. Onartezinak sakonean zerbitzu publiko bati murrizketa oso handiak jartzen zaizkiolako, baina zerbitzu publiko efiziente bati jartzen zaizkio murrizketak, erabilia den zerbitzu publiko bati ezartzen zaizkio murrizketak, urtez urte erabiltzaile kopurua handitzen doan zerbitzu bati. Gutxi gora behera 40.000 gora tolosarrek behin edo bi aldiz, sarri erabiltzen den zerbitzu bati jartzen zaizkio murrizketak. Sakonean ez gaude ados, jende askok erabiltzen duen zerbitzu bati kalte egiten diotelako, kalte zerbitzuari eta kalte pertsona horien eguneroko bizitzari. Eta formetan ere iruditzen zaigu esperpento bat dela Foru Aldundiak erabili duen forma. Esperpento bat udalak ez omen duzelako jakin izan BOG argitaratua

izan arte, inori ez zaiolako jakinarazi, honen berri ez zaio eman publiko egin den arte. Azken finean, herriari eta herriei bizkar emanez hasi den prozesu bat delako murrizketa guzti hauena. Murrizketak gainera ez dira nola nahikoak, hau da, 33 autobusetik 18ra jaisten dira zuzeneko zerbitzuak. Lehen orduan, unibertsitatera, ospitalera joaten diren eta jendez lepo dauden autobus horietatik, 8tik 4ra jeisten da zerbitzua. Kalte nagusiena gazte askori, kotxea ez daukaten horiek eta mugikortasuna autobus zerbitzuen hauen bidez bermatzen zaien gazte horiei eragiten die. Beraz, formetan esperpento izan da bat nola egin diren gauzak. Mozio honek belarritik tiratzea eskatu beharko luke Tolosako udalak Foru Aldundian dagokion departamentu edo kargu politikoari. Belarritik tiratzea formetan ez direlako gauzak horrela egiten eta sakonean murrizketa hauek ulergaitzak direlako segur aski ikuspegi ekonomikoengatik ere. Zerbitzu publikoetaz hitz egiten dugunean ez dugu mugatu behar ikuspegi ekonomiko batera soilik, baizik zerbitzu publikoak zerbitzuak dira eta publikoak eta herritarren mugikortasuna bermatu behar da eta defizitarioak izatea ere badute eta segur aski zifrak ez dituk ikusi baina erabilera ikusita beldurra ematen dit hau egiteko gaitasuna eta adorea badute zer ez duten egingo Tolosaldean herri txikietara gaur egun eskaintzen den zerbitzu horrekin. Gainera zerbitzu hau, aurreko legealdian, Martin Garitano Aldun Nagusia zenean partehartze prozesu sakon baten bidez indartu zen eta sakondu zen erabiltzaileei, herriei galdetzen noiz eta zeintzuk ziren gehien behar izaten zituzten orduak. Murrizketa hauek, berriz, justu kontrako bideari ekin diote. Hau da, garai hartan publikoki eta partehartze prozesuaren bidez zerbitzuak inplementatu ziren eta orain atzeko atetik murrizketak datoz. Justu kontrakoa bi zentzutan. Horregatik ezin dugu onartu. Ezinbestekoa ikusten dugu irailaren 7an publiko egin zen dekretu hori edo lege formatu hori etetea, hau da, etetea martxan jarri den prozesu hau ezinbestekoa ikusten dugu eta berria martxan jarri aurretik herritarrekin aurreko legealdian martxan jarri zen prozesu bera garatzea. Ulertzen dut lehenago edo adosten saiatu izatea eta mozio alternatibo honetan zenbait keinu guri egitea zuekin batera adostu nahi horretan. Murrizketa hitza aipatzen da, ongi, baina erabat heteroa iruditzen zaigu zuek aurkeztu duzuen mozioa. Ulertzen dugu izan ere, EAJ eta PSE dira momentu honetan Gipuzkoako foru aldundiaren ardura politikoa dutenak eta hau martxan jarri izanaren ardura duzuenak eta ulertzen dugu deserosoa izan daitekeela etetea edo hemendik zuen alderdikideei eten izan behar izatea edo gaizki egin dutela edo belarritik tiratzea baina hemen uste dut tolosarren interesen alde gaudela denok eta zentzu horretan guri dagokigula esatea gauzak ez direla horrela egiten murrizketa hau ez dugu onartzen eta horregatik bat egitea guk planteatu dugun, EHBilduk planteatu duen mozioarekin. Izan ere, zuen mozioan, lehenengo puntuan, bost lerrotako esaldi bakar horri ez dut ulertzen eta hala dio:

“Tolosako Udaleko Osoko Bilkurak Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Sailari eskatzen dio Tolosaren konektagarritasuna bermatzeko Donostiarekin eta Buruntzaldea osoarekin hiriarteko Autobus-zerbitzuaren bitartez, arreta berezia eskainita puntako lanorduei eta eskola-orduei, eta zerbitzuak udalerriko eta Buruntzaldea osoko biztanleen benetako mugikortasunera egokituta” Nik ez dakit zer esan nahi duzuen hain zaila al da martxan jarri duzuen prozesua eten beharra dago, gaizki egin delako, murrizketak suposatzen dutelako eta hemendik aurrera prozesu esleipena martxan jartzeko aurrez jarri zen partehartze prozesu bera garatzea, hori eskatzea bi esaldi dira, ez dira bost eta puntu gabekoak. Beraz, ulertzen dut deserosoa dela baina momentu honetan gure herritarren eta gure interesaren alde, tolosarren alden tokatzen zaigu belarritik tiratzea Gipuzkoako foru aldundian erabaki hau hartu duen arduradun politiko horri. Eta horretarako gure mozioa aurkeztu dugu. Bi hitzetan, gu gurea aurkezten dugu, gurea babesteko eta zuena iruditzen zaigu dela guri, horixe, ea goxo-goxo aldatzen dugun baina zuenean ez duzue esaten inongo momentuan etetea eta planteatzen dena da mantendu ditzala orain arteko zerbitzuak. Dena da ahalerak eta gogoak. Ez. Iruditzen zaigu belarritik tira behar zaiela, norberaren alderdikoa izanik ere edozeinek egin ditzake gauzak gaizki baina egokitzen zaigu esatea, horrela ez.

Horregatik guk gurea defendatuko dugu ikusten dugulako gauzak argi eta garbi uzten duelako eta eskatzen duela argi eta garbi hitz egitea.”

... Alkatea: *“Lehenengo eta behin esatea guk mozioa ez dugula mozioa aurkeztu kontra egiteko, baizik eta alternatiba bat jarri dugula mahai gainean nolabait adosteko modua bilatzeko, eten kontua adostea pentsatzen genuelako, Sakon sakonean, Ibaik pixkat argitu du, baina sakon sakonean desadostasun bakarra izanda etetearena. Orain arte emandako pausoak etetea ezinbesteko baldintzetaz jotzen duzelako. Egia esan alegazio epea luzatu baldin bada orain arte, aurreproiektua Gipuzkoako boletin ofizialean argitaratu ondoren luzatu baldin badute, partaidetza prozesu hori gauzatzea posible da, eta daukagun helburu hori betetzea, etena izan gabe. Beraz, hori izanda zuen baldintzetako bat adostasun batera ez iristeko. Bestela, mozioaren edukian erabat bat gentozen, hiru alderdiak gainera. Uste dut Ibaik esan du, baino nik ere errepikatu egingo dut, aldaketa egiteko Foru Aldundiak eta bereziki Mugikortasun sailak erabili duen modua ez da zilegizkoa. Are eta gehiago, Foru Aldunditik beti luzatzen diren mezuak gobernantza eredu onaren eredu horren baitan. Tolosako Udalak gobernantza on horretan sinisten du eta gainera aplikatzen saiatzen da. Horrelako aldaketa handi bat egitea autobuseko zerbitzuan, garraio publikoren zerbitzuan, zuzenean boletinean argitaratzea Eskualdeko udalerriei herriei argibiderik eman gabe ez da zilegi. Egia da, guk ez genuela jakin Gipuzkoa Foru Aldundiak nolabaiteko oharra pasa zigulako baizik eta, bereziki, nik jakin nuen Iruako alkateak ohartarazi ninduelako. Behin boletinean argitaratuta ondoren epe barrutan geunden baina ez zegoen denbora gehiegirik eta Tolosako Udalak alegazioa aurkeztu genuen, ondo fundamentua uste dut, ibaik aipatu dituen kontuak aipatzen. Beraz hori luzatuta dago dagoeneko alegazio modura Foru Aldundira, dagokion sailera. Egia da, ikusita alegazio aurkezten ari zirela eta herrietako deserosotasuna gaiaren aurrean sailak erabaki zuela alegazio epe hori ere luzatzea. Uste dut aukera badagoela hasitako prozesu horren baitan posible dela alegazioak egitea. Uste dut ez duzuela nahi izan adostasunera iritsi, ez dagoela sakonean beste ezer, zer hor esaten ditugun gauzak eta zuek aipatu dituzuenak alegazioa esaten dira. Irakurriko dut alegazioaren azkeneko aipamena: “Azaldutako guztia aintzat hartuta, uste dugu kalte nabarmena eragiten diela Tolosako eta Tolosaldeko bizilagunen interes orokorreari erabilera orokorreko bidaiarien errepideko garraio erregular iraunkorreko zerbitzu publikoaren emakidaren aurreproiektuak; era berean, ez da egin azterlan zehatzik planteatutako neurri horiek egiaz zer eragin izango duten jakiteko, eta tartean diren udalek, enpresek eta kolektiboek ez dute parte hartu aurreproiektua mamitzeko prozesuan. Beraz, hori guztia kontuan izanda, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailari eskatzen diogu berriro azter dezala proposamena eta ez ditzala murriztu maiztasunak eta geltokiak; izatekotan, lehendik daudenak mantentzea ditzala eta, horrela badagokio, gehiago jar ditzala, Gipuzkoan garraioaren egoerari buruzko azterlan zorrotza eta zehatza egiten den artean, beti ere tartean diren kolektibo guztien iritzia jasota. Hori guztia, dudarik gabe, herritarren mesederako izango da, eta, orobat, ezinbesteko urratsa Tolosaldeko udalerririk elkarren artean eta Donostiarekin lotuko dituen garraio-sistema publiko kalitatezkoa, eraginkorra, arina eta azkarra lortzeko. Horrela finkatuko ditugu lurraldearen ardatzak eta sortuko dugu komunikazio-sare egoki bat eskualdeei bultzada emateko eta probintziaren egiazko ardatz dinamizatzaile ekonomiko eta soziala izateko.” Hori bidalita dago Foru Aldundira, beraz, ez da kontua deseroso sentitzen garela, alderdi berdina dela, ez, ez hemen egiten ari gara lan administrazioari tokatzen zaio zerbitzu publikoak bermatzea eta hori da udal honek egiten duela alderdikierietan erori gabe.”*

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Hain ados baldin bagaude eta hain gauza bera esaten*

ari baldin bagara ez dut ulertzen. Guk, hemen mozioa aurkeztu dugu eta zergatik hartu duzuen lana kontramozioa egiteko. Ez dut ulertzen, hain berdina baldin bada eta hain gauza antzekoak esaten ari bagara eta ados egonda, ez hartu lan horiek. Esaten duzu administrazioa baina administrazioak bere lan administratiboak egiten ditu baina erabaki politiko batzuk daude atzean eta hau erabaki politiko bat da. Hemen erabaki politiko hartzen dugu eta zuek hartu duzue erabakia kontramozio bat aurkezteko. Eta ez dela kontramozioa? Zuen bozkatuko da eta onartuko da eta gurea ez. Hau da, bat edo bestea, horregatik da kontramozioa. Berriro diot, hain berdinak balira ez dut ulertzen zergatik sartu duzuen zuek zuena, gurea bozkatu besterik ez zenuten edo abstenitu.”

... Alkatea: *“Aipatu dut zein zen desadostasuna eta zen prozesuaren etena eskatu duzuelako baldintza ezinbesteko bezala eta guk pentsatzen dugulako ez dela etenik behar prozesua behar bezala egiteko. Badagoela aukera beste era batera egiteko.”*

17. Tolosako EHBildu alderdiak aurkeztutako mozioa, Kataluniari elkartasuna adierazteko.

17.Moción de solidaridad con Cataluña, presentada por la coalición EHBildu de Tolosa.

Partehartzeak:

...Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Alderdi Sozialistatik elkarrizketa politikoa, negoziazioa eta paktoaren bidea defendatu dugu eta defenditzen jarraituko dugu, guztion berezitasunak, askatasunak eta eskubideak bermatzeko. Egun hauetan gertatutakoa elkarrizketarekin ez litzateke gertatuko. Ez Pptik ezta Kataluniako Gobernetik egon zen elkarrizketarako borondatea. Puigdemont-ek aukera eduki zuen 155.artikuluaren aplikazioa gelditzeko, benetako hauteskundeak konbokatzea bakarrik eskatzen genion. Ez zuen egin, bere gizarte-hausturarekin jarraitu nahi izan zuen, berme gabeko referendum ilegal baten emaitzak ezarriz, independentziaren aurkako jendeari inposatuz. Abenduaren 21ko hauteskundeetan, Kataluniako biztanleek aukera edukiko dute benetako hauteskunde autonomikoetan parte hartzeko, berme legal eta politiko guztiak dituzten hauteskundeetan, nun, ere, alderdi independentistek bere aitortza eman diete.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Orain dela hilabete izan ginen eztabaidan Kataluniako auzian eta udalbatza honek erabaki zuen elkartasuna adieraztea Kataluniako herriari. Ikusi genuen bezala Carme Forcadellek bidali zigun kuttunaren medioz asko eskertu ziguten gure jarrera. Hori, oker ez banago, irailean 26an, urriaren 1eko aurreko astean. Gero batzuk lekuko izan ginen Katalunian gertatukoaz. Bi gauza nabariak azaldu ziren: batetik borondate baketsu eta demokratiko bat bere iritzia, urren eta botoen bidez emateko bidea eta, bestetik, indarra, ukazioa eta beldurra besterik ezagutzen ez duen gobernu baten erantzuna: jendea eraso, gazte, zahar eta ume, eta eragotzi nahian herri batek bere borondatea libreki eta demokratikoki adieraztea. Orain arte Kataluniako herriak erakutsi du bere baitan duen indarra, bere helburua lortuko duen kemena eta bereak bide demokratiko eta baketsuak jokatzeke duen indarra. Nolabait esatearren, izan zen erresistentzia baketsuaren adibide zoragarri bat eta hala sentitu nuen han egon nintzen lekuko eta horrela sentitzen omen zuten hemengo beste batzuk. Zein izan zen Espainiako gobernuaren erantzuna, zein izan zen Espainiako erakundearen nagusiaren erantzuna? Lehengo lepotik burua mehatxua, beldurra eragitea eta elkarrizketari uko egitea. Gogoratu behar dugu*

zenbat bider eskaini zion Carles Puigdemontek Mariano Rajoyri benetako elkarrizketa bat irekitzea, ez pareta baten kontrako elkarrizketa bat irekitzea. Izan ere, horixe besterik ez zuen nahi Mariano Rajoyk. Bai egon naiz, baina nirearekin atera naiz. Hori ikusi zen beste behin Kataluniak eta euskal herriak daukagun estutua agertu da beste behin Espainiaren ikuspegi zentralistena, atzerakoena eta autotarismoak murgilduta dagoena, dibertsitateari bizkar ematen diona, munduaren kosmobisioa. Tamalez, Espainiaren bisio inperiala. Mentalitate hori, hau da, gaztelaren kosmobisio itxia. Tamalez Espainiako abertzaleen, eta nik ez daukat ezer Espainiako abertzaleen kontra, baina bere kosmobisioa ez da kosmobisio ireki zabal eta demokratiko bat, da gaztelaren kosmobisio itxi hori. Eta horren kontra borrokatu behar dute. Balukete Espainiako agintariak Kanadako agintariaz ikastea, Eskoziako jarreraz ikastea, ez dute ikasi Kataluniako arazoa demokrazia aurreratuan elkarrizketaren bidez bideratzen dira eta herritarrak bozkontzi botoa emanaz erabakitzen dira. Eta hori da, hain zuen ere, Espainian dagoen arazoa, ez dutela horretara iritsi nahi, inondik inora. "España una grande y libre" hori da buruan dutena, izan ezkerreko, izan eskuineko eta hori da ikusi duguna. Mozio hau dator nolabait aitortza egitea eta pozez adieraztea Kataluniako herritarrek hartu duen erabakia eta bestaldetik salatzea oraintxe aipatu ditugun jarrera atzerakoi elkarrizketaren kontrako itxi horiek. Espero dezagun Kataluniako gatazka modu adostu, demokratiko batean konpondu ahal izatea baina ez dauka konponduko den itxurarik. Kataluniako presidentea eta bere gobernuko zati bat exilioan daukagu Belgikan. Companyns garaian bezala eta Companyns bezala esan zuen bukatuko zuela PPko goi agintari batek. Espero dezagun Puigdemont horrela ez bukatzea eta abenduko 21eko hauteskunde horietan Kataluniako alderdiek parte hartzea, eta hori errespetatzea. Guk hori errespetatzea besteri ez dugu. Seguru nago hauteskunde horietan ere, orain arte erakutsitakoa erakutsiko dela eta hemendik bi hilabetera gaur gauden egoera berean egongo garela. Hori izango da 155 artikulua aplikazioaren ondorio bakarra. Hor Espainian esaten ari diren bezala abenduaren 21a izan liteke Kataluniako benetako autodeterminazioaren erreferenduma. Bitartean, errespetu osoa, laguntza osoa, babesa osoa Kataluniako herriari eta Kataluniako erakundeek egiten ari diren borrokari, demokratiko, baketsu eta ereduzkoa."

... Alkatea: "Guk bat egiten dugu Iñakik egiten duen adierazpen horrekin. Bai azpimarratu eta irmoki gaitzetsi konstituzioaren 155 artikulua aplikazioari eta gainera mingarriena da aplikazio hori demokrazia eta askatasunaren izenean egiten dutela esatea. Uste dugu Kataluniako herriaren interbentzioa antidemokratiko dela, demostratu duten gauza bakarra da espainiarra autonomien estatua gezur handi bat dela. Hori egia balitz ez litzake ailegatu mutur honetara. Esan guk bakarrik errespetatuko dugula erabateko errespetua diogula Kataluniako herritarrak erabakitzen duten horri, oinarrian erabakitzearen eskubideen alde egon delako beti historikoki eta Euskal Herriak eta Kataluniak bide paraleloak dituztela esan genezake, ez berdinak, baina bai paraleloak eta beti elkarren aldamenean egon garela horrelako aldarrikapenak egiteko garaia. Beraz, erabat ados."

Gai zerrendan agertzen den mozioaren ordez, EAJ-PNV eta EHBildu alderdiak adostu duten mozioa irakurri da. Honela dio:

"Kataluniako parlamentuak independentziaren adierazpena egin eta gero, erabaki historiko horrek Kataluniarentzat duen garrantziagatik eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahiagatik Udal honek honakoa adierazten du:

1. Aitortza, errespetua eta afektua erakutsi nahi dizkio Kataluniako errepublikari.
2. Exijitzen du Kataluniako herritarren borondatea errespetatzea, zeina behin eta berriro hautestontzietan, modu demokratikoan, adierazi den.
3. Zorionak ematen dizkie Kataluniako herritarrei, gizarte eragileei, erakundeei eta alderdi politikoei. Eta modu berezian azken urteetan Giza Eskubideak, bakea, demokrazia eta askatasuna defendatu izugarritzko ausardia eta konpromisoa erakutsi duten hautetsi guztiei. Eredua dira guretzat.
4. Aldarrikatu nahi du Estaturik gabeko nazio guztiek euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea. Horregatik, eskatu nahi die euskal alderdi politikoei akordio batera iristeko daitezela eskubide hau legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren autogobernu ponentziak jasotzeko.
5. Zeharo deitoratzen du Espainiako Senatuak konstituzioaren 155. artikulua indarrean jarri izana herritar katalanek eta beren ordezkariak hartutako erabaki demokratiko bat bertan behera uzteko helburuarekin.
6. Onartzen du Adierazpen hau Kataluniako Generalitat-era, Kataluniako Parlamentu- era eta Kataluniako Independentziaren aldeko udalerrien elkartera (AMI) igortzea.”

Mozioa bozketara jarri ondoren, **onartu egin da** EAJ-PNV(9) eta EHBildu(7) alderdien aldeko botoekin eta PSE-EE (1) alderdiko zinegotziaren kontrako botoekin.

18. Galderak eta eskaerak.

18. Ruegos y preguntas.

Partehartzeak:

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): “Urriaren 25ean izan genuen Kultura eta Festetako batzordean egin nuen galderaren inguruan: Iñauterietako karrozak biltzeko erabiltzen zen Deltako pabiloiaren suturen ondorioz alokatu ziren bi pabiloi txiki eta orain haiek utzi dira eta Deltako pabiloiaren luzatzen ari denez pabiloi handi bat alokatu duzue. Feriara ere hortxe dago. Nire galdera izan zen plangintzarik ba ote zegoen. Izan ere, diru kontuak ere aipatzekoak dira, lehen zeudenarekin alderatuz, kopurua askoz handiago baita, 80.000 €koa. Feriaren erabilera nolakoa izango zen, Feriara erabiliko ote zen karrozak prestatzeko. Momentuz plangintza ez zegoela erantzun zidaten. Deltakoak su hartu ondoren, ulertzekoa da momentuan hartu zen erabakia, baina oraingoan diru kostu handian sartzen gara. Diru kopuru hauetan sartuz gero plangintza beharrezkoa dela uste dut.”

... Alkatea: “Egia da, gai asko kolpatzen dira hemen. Ferialekuan hainbat obra egin ziren, teilatua eta abar. Garai batean, San Esteban auzoko plangintza barruan beste plan bat zegoen. Ferialekua desagertu egiten zen orain arte zegoen bezala eta beste proposamen bat zegoen. Krisi garaian plangintza erortzen da eta beste planteamendu batzuk egiten dira eta argi ikusten da bere horretan geratu behar duela. Ondorioz, mantenu obra batzuk, teilatua e.a. egin behar direla erabakitzen da. Eraikina konpontzen denean erabilera handiago bat emateko eskaera sortzen hasten da. Lehen erabilera bat zuen eta orain badu beste bat. Modu guztietara, urte asko dira eta uste dut orain arte ez zaiola heldu eta karrozekin asignatura pendiente dauka Udaletxe honek. Ez da logikoa edukitzea Ferialeku

non aktibitate asko egin daitezkeen Iñauterietako karrozak gordetzeko erabiltzea. Gero eta partaidetza handiago dago Iñauterietan eta inongo planifikazio gabe gordetzen joan karrozak. Deltako sutearen ondoren, gaia mahai gainean jarri eta nolabaiteko soluzio bat planteatzen hasi, hori behar beharrezkoa baita. Sortzen da aukera hau Pabeilo bakarrean sartzea karroza guztiak eta horrela Ferialekuak erabilera gehiago izateko edukitzea. Horrela kultura, kirola aldetik eskaerei erantzuna eman ahal izateko. Plangintza egiten da bai kultura eta kiroletan egiten da. Horregatik, agian, erantzuna horrela eman zizuen, egokitasunaren arabera eta eskaeran jardueraren arabera emateko. Kontua da batetik saiatu behar dugu karrozen gaiari behin betiko erantzuna ematea, eta horretarako jada Kultura zinegotzia ari da bilerak egiten karrozetakoekin, bileran, proposamen bat egin beharko da batzordean aztertu ikusteko gordailuak zer eratarata funtzionatu behar duen, zer karroza moduak ateratzen diren, nork daukan gutxieneko segurtasuna e.a. orain arte heldu ez zaizkion gai askori seguru asko izango da garaia hitz egiteko. Eta ahalbideratu Ferialekuan beste erabilera handiagoa izatea. Badira batzuk bi urteko abesbatzen lehiaketako bazkaria, aurten han izango da, horretarako Ferialekua osoa, Frisoi lehiaketa, ez dugu ahaztu behar bere hastapenean ganaduentzako zela, hori ahaztea akatsa izango zen. Badira aktibitate batzuk mantentzen direnak eta bestalde badira beste eskaera batzuk bai kultura eta bai kiroletatik. Hori dena ahalbideratu du beste pabiloi handiago batean egoteak.”

- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Gu ez ginen ados ez zegoelako plangintza bat Ferialekuan eta obra egin zen momentuan ittuteak eta segurtasun arazoak zeudelako, obra egin beharra zegoelako. Plangintza bat eskatzen genuen urte batzuetara begira eta ez zen egin. Eta karrozei dagokionez, ados nago, azken batean, Deltako pabiloiak su hartu zuen, atera beharra zegoen handiak, bi pabiloia txiki hartuz e. a. Baina ez nago ados pabiloia handiaren alokairuan hartu izanak. Uste dut atzeratu egin zezakeela. Beste modu batera egin, pabeiloi txikiak erabili, kanpoan utzita hilabetean, Ferialekua erabili karrozak egiteko eta martxorako pabeiloa konpondu. Agian bazegoen beste era batera egitea, zifrak oso aldakorrak baitira.”*
- ... Alkatea: *“Baloratu egin dira aukera ezberdinak. Delta kasuan aseguru etxearekin arazoak dauka eta ez dakigu bere konponketak zenbait iraungo duen, hiru hilabete edo urtebete edo bi. Printzipioz, bi hilabete kontua zen baina oraindik ez dira hasi. Beraz, beste aukera baloratu behar da. Pabiloi berri honetan aukera izango dute lanean aritzeko. Oraindik azaroak 1etik Iñauterietan pasa bitartean Ferialekua erabilgarri izango da, orain arte egon ez dena, kenduta Frisoi lehiaketa egiten denean eta Nazioan arteko abesbatzen bazkaria kenduta. Kontutan izanda eskaerak daudela egun horietan ezinbestean Ferialekua erabiltzeko. Dira herrian dauden eskaerei erantzuna emateko dira. Bestalde, plangintza Ferialekuan ezin da egin karrozak beteta daudenean, lehenengo karrozen gaiei irtenbidea eman behar zaio. Eta azterketa, agian udal zerbitzuak ematen diren eraikinetako azterketa hori, eta Ferialekua sartuta dago. Eta horiek ere emaitzak emango ditu.”*
- ... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *“Plangintza aipatzen denean, karrozez beteta egonda ere badago egiterik eragileekin hitz egin da. Ez badaude beharrak berdin da zerrekin beteta egon.”*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Gipuzkoako Foru Aldundia kritikatzeko dugu autobus zerbitzuak guri jakinarazi gabe erabakiak hartzen dituelako, baina gauza bera egiten duzue gurekin, gai honetan zehazki. Hau da, batzordera eramaten duzue erabakita daukazuenean 80.000€ sartuko dituzuela pabiloi baten alokairuan. Baina nire interbentzioa beste gai baten inguruan egin nahi dut, baina bai nahiko nuke Kultur batzordean gaia erabaki aurretik beste eragileekin kontaktzea, izan ere guk ere badaukagu eskubideri hori. Hitza hartu dut elkartasuna erakutsi nahi dudalako edo eskaini nahi digutelako Eskualde honetako bi pertsoneri bereziki baina Euskal Herriko berrogeita zortzi lagunei. Izan ere, Kataluniako*

zurrunbilo guzti honetan geundela eta gaudela isilean pasa den beste makroepaiketa baten berri eman zaigu. Jende asko ez da konturatu ere baina 48 lagun fiskaltzak 602 urteko espetxe zigorra eskatzen die Euskal Presoen eskubideen alde lan publikoa egiteagatik. Astakeri galanta zuk horren beste aldarrikatzen duzun demokrazi edo demokrazia honetan, astakeri galanta, eta gure eskualdeko bi lagun daude 14 eta 15 urte espetxean pasatzeko aukera dituztenak. Beraien lana presoen eskubideen alde lan publikoa egitea izanda eta horregatik gure elkartasun guztia Jesus M^a Aldunberri, Elduaingoari eta Jon Mindegiaga ibartarrari beraiekin gaudela esan, hau beste makroepaiketa iraganeko makroepaiketa horiekin gaur egun oraindik jarraitzen dela salatu eta isilean eta azpitik pasa den notizi hori mahai gainean jarri pertsona hauek espetxeratzeko zigorra bete ditzakeelako eta inoiz izan ez zituen makroepaiketa hauek, gaur are eta gutxiago.”

... Alkatea: *“Nire aldetik baita ere aipatu gertaera eta erantzukizuna eskatzen denean nolabaiteko proportzionaltasun bat bete behar dela, hori askotan aipatu izan dugu, baita ere pleno areto honetan. Terrorismotzat jotzeak kalean gertatzen diren hainbat gertakari guztiak ez da egokia, kontudentzia berdinarekin ere, baita ere esan indarkeri mota guztiak gaitzesten ditugula, demokrazia oinarri hartuta, eskubide zibil eta politiko guztiak aldarrikatu behar dira, baina erokeri bat dela terrorismotzat jotzea gertakari guztiak. Beraz, proportzionaltasun horren eskaera egitea.*

Amaitzeko, aste buru hau izanda Tolosan izugarria, luzatu nahi nuke nire eskerrak eman herritar guztiei parte hartu duten hainbat eta hainbat ekitaldietan, Tolosa Goxua, Tolosa Kantari, Bedaioko bizilagunei antolatu zuten azoka arrakastatsu horregatik, Olarraingo festetan egindako ekitaldi guztiengatik, denei eskerrak ematea eta gogorarazi Abesbatzen nazioarteko lehiaketa hastear dela, aurten datozen abesbatzak Luismi Espinosak esan digunez izugarrizko maila daukate, beraz, animatu jende guztia Leidorrera inguratzea abesbatzak entzutera.”

Besterik gabe, gaueko 21:05ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:05 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA

